



HIZKUNTZA ALJEBRAIKOA

Adierazi esaldiak hizkuntza aljebraikoan:

Adibidez: Zenbaki bat hiru halako $\rightarrow 3x$
 Zenbaki bat hiru aldiz $\rightarrow 3x$
 Zenbaki baten hirukoitza $\rightarrow 3x$

3x

1. Zenbaki baten bikoitza gehi 5 $\rightarrow$
2. Zenbaki bat eta 4ren arteko batuketaren bikoitza $\rightarrow$
3. Zenbaki baten erdia ken 8 $\rightarrow$
4. Zenbaki baten eta 7ren baturaren berbidura $\rightarrow$
5. Zenbaki baten erdiaren kubo $\rightarrow$
6. Zenbaki baten berbiduraren laukoitza $\rightarrow$
7. Zenbaki baten hurrengo $\rightarrow$
8. 40 ikasle artean, x mutil kopurua bada, neska kopurua $\rightarrow$
9. Pertsona baten adina 3 urte barru $\rightarrow$
10. Pertsona baten adina orain dela 5 urte $\rightarrow$

OHARRA: erantzunak emateko jarraitu hurrengoko instrukzioak:

- Zenbakiak beti letra aurretik
- x^2 idatzi beharrean $\rightarrow x^2$
- Zatikiak: $5/6$
- Ez ahaztu parentesiak

BURUKETAK

Idatzi soluzioak lauki zuzen barruan

1. Zoo batean, txinpantze kopurua gorila kopurua halako bi da. Guztira 171 animalia badaude, zenbat txinpantze eta zenbat gorila daude?



txinpantze
gorila

2. Jonek autobusez egin du bidaia baten laurdena; motoz, seirena; bizikletaz, hiru zortziren; eta azken 40 km-ak, oinez. Zer distantzia egin du guztira?



Distantzia: km

3. Triangelu isoszele baten itxurako baratza dauka osaba Txominek. Oinarriak, berdinak diren aldeak baino 20 metro gutxiago ditu. Kalkula ezazu, alde bakoitzaren neurriak jakinik perimetroa 220 metrotakoa dela.



Alde berdinak: m
Oinarria: m

4. Robertok bere alaba Nereak dituen urteen hirukoitza du. Kalkulatu bakoitzaren adina, kontuan hartuta hemendik 12 urtera aitaren adina alabaren adinaren bikoitza bakarrik izango dela.

Aitak: urte
Alabak: urte

5. 0,80 €/l-a dagoen ekilore-olioa 0,60 €/l-an dagoen soja-olioarekin nahasita, 0,75 €/l-an dagoen nahaste baten 500 litro lortu ditugu. Ekilore-olioaren zenbateko kantitatea erabili dugu? Eta soja-olioarena?

Ekilore-olio: l
Soja-olioa: l

6. Automobil bat, errepide nazional batean, 90 km/h-ko abiaduran joan da, baina gero autobide batean sartu da, eta 120 km/h abiaduran joan da. Bidaia guztira 5 ordu iraun badu, eta batez besteko abiadura 108 km/h-koa izan bada, zenbat denbora egin du errepide bakoitzean?

Autobidean denbora: h
Errepide nazionalean denbora: h